



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 1a

110. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-24/PRO-00015. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00107. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkartuta dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta gizarte-entitateekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko. Ramón Alzorri Gofi jaunak aurkeztu du (6. or.).

—11-24/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako dirukopurua jaso dezan hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEbP programako funtsak gaizki kudeatzen heldu diren kalteek sortutako desoreka ekonomikoari aurre egiteko. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan. Javier Arza Porras jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-24/MOC-00115. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeen eskubideen arloan munduko zenbait tokitan gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak errefusa ditzan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (9. or.).

—11-24/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko. Osoko Bilkuran izapidetzea (10. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (11. or.).

—11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (11. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

**11-24/LEY-00009. Foru-lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzkoa**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

2024ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** 2024ko urriaren 30eko 12:00ak arte luzatzea Nafarroako Foru Komunitateko Sustapen Ekonomikorako Eremuei buruzko foru-lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea. Foru-lege proiektua 2024ko irailaren 13ko 103. NPAOn argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**B saila**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-24/PRO-00015. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Agintzea Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

**2.** Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Auzitegi Gorenaren 2023ko otsailaren 28ko epaiaren ondoren nafar mutualisten eskaerei soluzio bat emate aldera, foru-lege proposamen honek aldatu egiten du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren bigarren xedapen iragankorra, halako moldean non, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eginiko ekarpenetatik eratorritako Gizarte Segurantzako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioak ez baitira geratuko aipatu xedapenaren aplikaziotik salbuetsita.

Halaber, 2024ko zergaldian aplikatzekoa den aparteko kenkari bat arautzen du Gizarte Segurantzarengandik 2020-2023 zergaldietan erretiro- edo baliaezintasun-prestazioak jaso zituzten subjektu pasiboentzat, harako prestazioak zeinak eratorriak baitziren gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru-kontratuetara 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago egin eta fiskalki kengarriak izan ez ziren ekarpenetatik. Kenkariaren zenbatekoa banaka zehazten da subjektu pasibo bakoitzarentzat, Gizarte Segurantzarengandik jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen eta 2020-2023 zergaldietan eginiko autolikidazioen arabera.

Hori horrela, proposatzen da aldatzea Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruz-

ko Foru Legearen testu bategina, honela aldatu ere:

**Artikulu bakarra.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren aldaketa.

Ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek honako testu hau izanen dute:

**Bat.** Bigarren xedapen iragankorra, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin:

"Bigarren xedapen iragankorra. Gizarte aurreikuspeneko mutualitateei ezarriko zaien araubide iragankorra.

1 Gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin itundutako aseguru-kontratuetatik eratorritako erretiro- eta baliaezintasun-prestazioak lan-etekin gisa sartuak izan beharko dira zerga-oinarrian, baldin kontratu haietarako 1999ko urtarrilaren 1a baino lehenago eginiko ekarpenekin minoratua izan bazen, parte batez behintzat, zerga-oinarria.

2 Zerga-oinarrian sartze hori eginen da jasotako zenbatekoak gainditu egiten dituen neurrian uneko lege indardunen poderioz zerga-oinarriaren murrizketa edo minoraziorako erabili ezin izan diren mutualitatearentzako ekarpenak, zeinak, horregatik, jada zergapetuak izan baitira.

3 Baldin ezin bada frogatu zerga-oinarrian murrizketa edo minoraziorako erabili ezin izandako ekarpenen zenbatekoa, jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen ehuneko 75 sartuko da zerga-oinarrian".

**Bi.** Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria, gehikuntza egitea, 2024ko eraginarekin:

"Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. Aparteko kenkaria, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei eginiko ekarpenen ondorioz 2020tik 2023ra bitartean Gizarte Segurantzarengandik jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen ondoriozkoa.

1 Kasuko kuota diferentziala zehaztu ondoren, baldin subjektu pasibo batek 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago ekarpenak egin bazituen gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin hitzarturiko aseguru-kontratueta, harako ekarpenak zeinek, fiskalki kengarriak ez izateaz gainera, Gizarte

Segurantzarengandik 2020, 2021, 2022 edo 2023ko zergaldietan erretiro- edo baliaezintasun-prestazio bat jasotzeko eskubidea sorrarazi baitzuten, orduan zilegi izanen du 2024ko zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioan aparteko kenkari bat aplikatzea, honako apartatu hauek xedatzen dutenaren arabera zehaztua.

2. Kenkariaren zenbatekoa aipatu zergaldietan subjektu pasiboak ordainduko ez zukeen kuota diferentzialaren arabera zehaztuko da, ez-ordaintze horren zenbatekoa izanik gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin eginiko aseguru-kontratuengatik 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago eginiko ekarpenei zegokien Gizarte Segurantzarengandiko erretiro- edo baliaezintasun-prestazioaren parteari ehuneko 25eko murrizketa aplikatu izan balio suertatuko zatekeena.

Ondorio horietarako, murriztuko den parteia izanen da 2020, 2021, 2022 eta 2023an jasotako prestazioaren zenbatekoari koefiziente bat aplikatzearen emaitza, harako koefizientea zeina suertatuko baita 1979ko urtarrilaren 1a baino lehenago kotizazio-egunen kopurua zatitzetik prestaziorako eskubidea eman duten egun kotizatuaren guztizko kopuruaren artean.

3. Baldin eta, familia-unitateko kide batek baino gehiago izanik kenkaria aplikatzeko eskubidea, familia-unitateko kideek aukeratu bazuten baterako aitorpena egitea prestazioak jaso ziren zergaldietan, orduan, 2024an kenkariaren zenbatekoa banaka zehaztuko zaie, aipatu zergaldietako bakoitzean familia-unitateko kide bakoitzak jasotako prestazioaren proportzioan.

4. Kenkaria aplikatu ahalko da baldin eta subjektu pasiboa Nafarroako Foru Ogasunarekin zergapetu bada berak Gizarte Segurantzarengandik aipatu zergaldietan jasotako erretiro- edo baliaezintasun-prestazioen osoko zenbatekoaz, eta kasu horretan bakarrik".

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra, legean bertan aurreikusitako efektuekin.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

## **11-24/MOC-00107. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkaturata dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta gizarte-entitateekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko**

*RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkaturata dauden indar politikoekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta gizarte-entitateekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premia-tzen da akordio instituzionala bila dezan, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko.

Jarraipena eginen duen batzordea: Lehendakaritza eta Berdintasuna.

Zioen azalpena

Nafarroa erreferentziazko gizartea da berdintasun-politiketan, LGTBI kolektiboaren eskubideak eta askatasunak konkistatu eta defendatzeko politiketan, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan eta gutxiengoen eta kolektibo ahulen babesean.

Hala ere, Europako, autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazio jakin batzuek hedatutako politikek moteldu eta larriki mehatxatu dute eskubideen lorpenen etengabeko aurrerapenean egindako ibilbidea, bereziki 2023ko maiatzean zenbait gobernutan izandako aldaketan ondoren. Ez da kasualitatea erakunde publikoetan ultraeskuina sartu zenetik gorroto-diskurtsoak hedatu izana, eta, horren ondorioz, kolektibo jakin batzuen aurkako delituak eta erasoak ugaritu egin dira.

Gorroto-diskurtso eta -delituek asmo diskriminatzailea dute, eta zaurgarritasun-egoera dela-eta babes berezia behar duten kolektiboetako pertsonen aurka egiten dira. Izan ere, zenbait kolektibori eta gutxiengori zuzendutako gorroto-diskurtsoak ugaritzea, hau da, LGTBI kolektiboari, migratzaileei eta estigma eta diskriminazioa pairatzen duten beste komunitate batzuei zuzendutako gorroto-diskurtsoak ugaritzea, mehatxu larria da gure gizarteko bizikidetzak baketsuarentzat eta giza eskubideentzat. Diskurtso horiek, bereizketa sortzeaz eta diskriminazioa sustatzeaz gain, indarkeria fisiko eta emozionaleko ekintzak ere eragin ditzakete.

Gorroto-diskurtso horiek gure bizikidetzak pozoitzen dute, eta gizarte hobea eta kohesiona-tuagoa eraikitzeke dugun gaitasuna suntsitzen dute. Horrek interpelatzen gaitu bidegabekeriaren aurka axolagabekeriarik ez izatera eta giza eskubideei eta aniztasunari erasotzen dietenen aurka

erabakitasunez jardutera, irmo izatera tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea defendatzean, eta Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztien berdintasun erreal eta eraginkorrerako eskubidea defendatzean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du akordio instituzionala bila dezan Nafarroako Parlamentuan ordezkatura dauden indar politikoeekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, gizarte-erakundeen parte-hartzearekin, giza eskubideak blindatzeko eta gorrotozko diskurtsoei aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak gure erkidegoko ikastetxeetan prebentzio-neurriak eta programak ezartzearen alde egiten du. Neurri eta programa horien helburua da aniztasuna errespetatzea eta gorroto-diskurtsoak elikatzen dituzten aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarteari zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egin ditzan, gorrotozko diskurtsoen ondorio negatiboez kontzientziatzeko, aniztasunarekiko errespetua sustatzeko eta, hartara, bizikidetzaren alde egiteko.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **11-24/MOC-00109. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako diru-kopurua jaso dezan hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEBP programako funtsak gaizki kudeatzetik heldu diren kalteek sortutako desoreka ekonomikoei aurre egiteko**

### *UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez einaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako diru-kopurua jaso dezan hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEBP programako funtsak gaizki kudeatzetik heldu diren kalteek sortutako desoreka ekonomikoei aurre egiteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako 3.000 etxe eta familia geratuko dira fatxaden inguratzaile termikoak paratzeko laguntzarik gabe, Europako funtsak agortu direlako, nahiz eta kasuko deialdian ezarritako baldintzak eta epeak betetzen dituzten.

Larriena da etxebizitza Departamentuak urte amaieratik zekiela hori gerta zitekeela, eta eskatzaileei ez ziela zetorkien arazoaren berri eman, eta ez zituela Nafarroako aurrekontuko funtsak baliatu egoera bidegabe hori konpentsatzeko, deialdi ofizialetan konfiantza izanik eta beren eskabideak garaiz eta behar bezala erregistratze aldera proiektu garestiei ekin zieten milaka pertsonak bizi dutena.

Hori gutxi balitz, beste egoera baten berri izan dugu, non arduradunen utzikeria eta gaitasunik eza are handiagoa izan baita IDAE-Energia Diber-tsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren funtsen kargurako laguntzen deialdiari dagokionez; izan ere, Nafarroako Gobernuak ez zituen eskatu ministerioan, nahiz eta partikularrek eta komunitateek parte hartzeko deialdia irekita egon. Beste 668 etxebizitzak laguntza izapidetzeko izapideak eta proiektuak egin zituzten, baina inork ez zien jakinarazi jada ezinezkoa zela laguntza eskuratzea, etxebizitza Departamentuan baliabide ekonomikorik aurreikusi ez zelako.

Bi egoera horien ondorioz, milaka pertsona partikular, profesional eta enpresa txiki zur eta lur geratu dira, eta merezi dute huts egin dien Administrazioak egin zaien kaltea konpontzea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bilera baterako dei egin eta bilera egin dezan kaltetutako komunitateekin, profesionalekin eta partikularrekin, eta azal dezan zer egoeratan geratzen diren eta zer aukera dituzten hasitako proiektuei berriz ekiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar adinako dirukopurua jar dezan erabilgarri hurrengo aurrekontu orokorretan, MRR funtsak agortu ondotik eta EEBP programako funtsak gaizki kudeatzeetik heldu diren kalteek sortutako desoreka ekonomikoari aurre egiteko.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

## **11-24/MOC-00113. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan**

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen 201-2023 Planak zenbait ildo estrategiko planteatzen zituen. Horietako bat gizarte-zerbitzuen lehen mailako arreta berrantolatzeari buruzkoa zen.

Duela gutxi, plan horren ebaluazio bat argitaratu da. Hor, aitortzen da zenbait urrats egin direla harrera- eta orientazio-programaren estandarizazioan, gizarte-zerbitzuen finantzaketan edo gizarte-zerbitzuetako zentroen ezarpenean.

Hala ere, lan komunitarioak ahulezia handiak dituela aipatzen da ebaluazio horretan. Funtsezko lan-ildoak dela aitortzen da, baina gutxi zehaztuta dagoela bere erakunde-esparruari, finantzaketari, lehenetsuneari edo egin beharreko gutxieneko ekintzei dagokienez. Era berean, hitzez hitz esaten da ez dela "aurrerapen esanguratsurik lortu prebentzio komunitarioko programen hedapenean eta garapenean".

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gizarte-zerbitzuen programa komunitario bat taxutu dezan 2025eko iraila baino lehen, izae-



ra propioa izanen duena eta lehendik dauden beste 4 programetarik bereiziko dena.

2. Programa horrek ekintza espezifikoak eta unibertsalak jaso behar ditu, baina baita zaintzarekin, gizarteratzearekin eta haur eta nerabeekin lotutako zeharkako beste ekintza batzuk ere.

3. Programa horrek finantzaketa egonkorra izan behar du, gizarte-zerbitzuen finantzaketa-sistemaren bidez.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## **11-24/MOC-00115. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeen eskubideen arloan munduko zenbait tokitan gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak errefusa ditzan**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeen eskubideen arloan munduko zenbait tokitan gertatzen ari diren indarkeria eta atzerakada egoerak errefusa ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeriak isilean gorde samar egoten jarraitzen du, indarkeria erabiltzen dutenen inpunitatea eta biktimiek jasaten duten estigmatizazio soziala eta lotsa ahalbidetzen dituen sistema baten ondorioz.

Oro har, indarkeria modu fisiko, sexual eta psikologikoan adierazten da.

Gaur egun emakumeen eskubideen aitortpenaren aurrera egin dugun arren, une honetan eskubide horiek ukatzearen eta deuseztatzearen gorakada bat bizitzen ari gara zenbait herrialdetan.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten talde parlamentarioek honako erabaki proposamen hau aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu emakumeen giza eskubideen atzerakada eta indarkeria-egoera horiek, eta Estatuko Gobernua premiatzen du, Nazio Batuen barruan kide aktibo gisa dituen erantzukizunaren barruan, honako hauek eska ditzan:

1. Talibanen gobernuaren ikerketa eta kontu-ematea Afganistanen emakumeen aurkako giza eskubideen etengabeko urraketa dela-eta.

2. Talibanengan eragina izan dezaketen neurriak hartzea afganiarren herriari kalterik egin gabe, hala nola zigor espezifikoak edo bidaia-debekuak, NBERen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen baten bidez ezarriak modu koordinatuan

eta irmoan, talibanek emakumeen eta neskatuen eskubideak urratzeari utz diezaioten.

3. Afganistanen aplikatzen diren gorputz-zigorrek salatzea eta horiek geldiarazteko neurriak aktibatzea, hala nola flagelazio publikoa, exekuzio publikoa, gorputz-atalen anputazioa, lapidazioa eta tratu txarren eta torturen beste forma batzuk, emakumeen nazioarteko zuzenbidea urratzen dutenak Afganistanen.

4. Bidezko epaiketak egiten direla zaintzea, bai eta Iranen emakumeei defentsarako duten eskubidea baliatzeko aukera emanen dieten lege-baliabiak erabiltzeko aukera bermatzea ere.

5. Afganistanen emakumeen eskubideak deuseztatzen dituen "Moraltasun Legea"ren ezarpena salatzea eta gaitzestea eta.

6. Epe laburreko eta luzeko ekimenetan, ikerketa akademikoan eta berdintasuna, ekitatea eta tolerantzia jorratzen dituzten proiektuetan oinarritutako giza eskubideen programak babestea, komunitateei zuzendutako justizia eraldatzailea eta "behetik gorako" ikuspegia erabiltzen dituztenak.

7. Nazioarteko komunitateak eta NBEk beren konpromisoa zabaldu behar dute, ohiko sareetatik harago, eta benetako lankidetzaren eta komunikazio-harremana izan behar dute Afganistango giza eskubideen eta abokatutzaren defentsan konpromiso aktiboa duten emakume manifestariek, giza eskubideen defendatzaile direnekin, eta gizarte zibilaren ordezkariekin eta GKEekin.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentariak: Miren Itxaso Soto Díaz de Cero, Irati Jiménez Aragón, Carlos Guzmán Pérez

---

## **11-24/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita azter dezan adimen artifiziala ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

2024ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko María Teresa Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita azter dezan adimen artifiziala

ezartzeko aukerarik ote dagoen itxaron-zerrendetako datuak hobeki tratatzeko eta hobetzeko. Mozioa 2024ko irailaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urriaren 30eko 14:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko urriaren 30eko 14:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

